

2017ko EKITALDIKO AURREKONTUARI BURUZKO TXOSTENA

Txosten honen xedea da EUDELen 2017ko ekitaldiko aurrekontua aztertzea. Horretarako, nabarmendu behar da, aurrekontu hau egiteko, autonomia-erkidegoko toki-erakundeei aplikatzekoa zaien aurrekontu-egitura aintzat hartu dela.

Txosten honetan, lehenik eta behin, sarreren eta gastuen analisi ekonomikoa egiten da kapituluka; gero, gastuen analisisa programaka garatuko da.

EUDELen 2017ko ekitaldirako aurrekontu orekatua 2.782.435,40 eurokoa da; horren arabera, aurrekontua %0,17 gutxitu da aurreko ekitaldiko aurrekontuaren aldean.

Lotura juridikoa, gastuen sailkapen ekonomikoa, kapitulu-mailakoa da; eta gastuen programakako sailkapenean, bestalde, gastu-arloaren mailakoa.

Halaber, 2017ko ekitaldiko aurrekontuan, gastuen arloan, hain zuzen, kontu-sail batzuk 6. kapitulutik 2. kapitulura birsailkatu dira, programa edo zerbitzu batzuei dagozkien gastuak direlako, ez inbertsioari dagozkionak.

Txostenari sarreren eta gastuen aurrekontuen egoera-orriak erantsi zaizkio.

SARREREN AURREKONTUAREN ANALISIA

2017ko ekitaldirako sarreren aurrekontu orekatua 2.782.435,40 eurokoa da. Aurreko ekitaldikoaren aldean, aurrekontua %0,17 murriztu da

Hona hemen 2017ko ekitaldiko sarreren aurrekontuaren banakapena, kapituluka, eta 2016ko aurrekontuarekiko alderaketa:

Zenbatekoak, eurotan

		2016ko HASIERAKO AURREKONTU- KREDITUAK	2017ko HASIERAKO AURREKONTU- KREDITUAK	ALDAKETA (%)	2017ko aurrekontuar en %
3. KAPITULUA	Tasak eta beste diru-sarrera batzuk	29.000,00	40.700,00	%40,34	%1,46
4. KAPITULUA	Transferentzia arruntak	2.704.733,92	2.687.816,04	-%0,63%	%96,60
	Zerga itunduen partaidetza	2.101.557,16	2.083.737,21	-%0,85	%74,89
	Bazkideen kuotak	283.076,76	283.978,83	%0,32	%10,21
	Gobernantza-proiekturako ekarpenak	0,00	30.000,00	%100,00	%1,08
	Diru-laguntzen sarrerak	320.100,00	290.100,00	-%9,37	%10,43
5. KAPITULUA	Ondare arloko diru-sarrerak	53.544,72	53.919,36	%0,70	%1,94
SARRERAK, GUZTIRA		2.787.278,64	2.782.435,40	-%0,17	%100

Honako hauek dira 2017ko sarreren aurrekontuen alderdi nagusiak:

3. kapitulua. Tasak eta beste diru-sarrera batzuk.

Kapitulu honetan, nagusiki, Tokiko Zuzenbideari buruzko Euskal Mintegiko inskripzioen ondoriozko sarrerak hartzen dira kontuan (hain zuzen, EUDELeK HAEErekin batera antolatzen du aipatutako mintegia), herritarrentzako arretaz-zerbitzua abian jartzeko lagun-egite programan parte hartuko duten udalen ekarpenen ondorioz aurreikusitako sarrerez gain. Bi kontzeptuon ondorioz aurreikusitako sarrerak 35.700 eurokoak dira.

Era berean, kapitulu honetan beste sarrera batzuk hartzen dira kontuan, 5.000 eurokoak.

4. kapitulua. Transferentzia arruntak.

Sarrerren kapitulu garrantzitsuena da, sarrera guztien %96,60 baita. Transferentzia arrunten ondoriozko sarreretarako aurreikuspena %0,63 gutxitu da 2016ko ekitaldiko aurrekontuaren aldean; hala, 2017ko ekitaldirako aurreikusten diren sarrerren zenbatekoa 2.687.816,04 eurokoa da.

Nabarmendu behar da udalak finantzatzeko foru-funtsen %0,15etik datozen sarrerak %0,85 gutxitu direla, aurreko ekitaldiko aurrekontuaren aldean. 2017rako sarrera-aurreikuspenetan, Udalkutxaren eta Gipuzkoako Udal Finantzaketarako Foru Funtsaren 2016ko likidazio negatiboak hartu dira kontuan; hain zuzen ere, likidazio horien arabera, EUDELe 107.067 euro itzuli behar ditu. Ondorengo taulan, zerga itunduen partaidetzari dagozkion datuak ageri dira, lurraldearen arabera:

Zenbatekoak, eurotan

			2016ko HASIERAKO AURREIKUS- PENAK	2017ko HASIERAKO AURREIKUS- PENAK	2016-2017 arteko aldea (%)
416		Foru-aldundiak eta beste foru- erakunde batzuk	2.101.557,16 €	2.083.737,21 €	-%0,85
	41601	Araba. Zerga itunduen partaidetza	279.285,85 €	295.684,10 €	%5,87
	41602	Bizkaia. Zerga itunduen partaidetza	1.122.793,73 €	1.099.932,99 €	-%2,04
	41603	Gipuzkoa. Zerga itunduen partaidetza	699.477,58 €	688.120,12 €	-%1,62

Udalen kuotei dagokienez, 2016an hiru udal gehiago egin dira EUDELeko bazkide, eta, horrenbestez, kontu-sail horri dagokion diru-sarrera %0,32 gehitu da, joan den ekitaldiko aurrekontukoarekin alderatuta.

Udalak finantzatzeko foru-funtsen partaidetza da baliabide nagusia EUDELen aurrekontuetan, eta sarrera guztien %74,89 da. Bestalde, elkarteko kideen kuotak sarrera guztien %10,21 dira.

Gainera, kapitulu honetan Gobernantza-proiektuan parte hartuko duten udalen ekarpenak ere hartzen dira kontuan; kontu-sail horren diru-sarrera 30.000 eurokoa izango da.

Transferentzia arrunten kapituluan, orobat, hitzarmenen eta diru-laguntza izendunen bidez Eusko Jaurlaritzako zenbait sailetatik eta Emakundetik jasotzea aurreikusten diren sarrerak biltzen dira. Halakoek sarrera guztien %10,43 osatzen dute:

- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saitetik, udaletan euskara erabil dadin sustatzeko planak taxutu eta gauzatzeko: 28.000 euro.
- Emakundetik, Berdinsarea sarerako eta Berdinbidean programarako, 84.800 euro aurreikusten dira, eta EUEK-ko Berdintasun Batzordeko burutzarako: 20.000 euro.
- Eusko Jaurlaritzatik, etorkinentzako itzulpen-zerbitzurako: lehengo zenbateko bera, alegia, 47.300 euro.
- Eusko Jaurlaritzatik, Tokiko Berrikuntza Agendarako: lehengo zenbateko bera aurreikusten da, alegia, 110.000 euro.

5. kapitulua. Ondare arloko diru-sarrerak.

Ondare-sarreren aurreikuspena 53.919,36 eurokoa da, eta ia guztia Colon de Larreategui kaleko 35. zenbakian –Bilbon– dagoen eta EUDELen jabetzakoa den ondasun higiezinaren alokairu-kontratuari dagokio.

GASTUEN AURREKONTUAREN ANALISIA

2017ko ekitaldirako gastuen aurrekontua 2.782.435,40 eurokoa da; horren arabera, aurrekontua %0,17 gutxitu da aurreko ekitaldiko aurrekontuaren aldean.

Hona hemen 2017ko ekitaldiko gastuen aurrekontuaren banakapen ekonomikoa, eta 2016ko aurrekontuarekiko alderaketa:

Zenbatekoak, eurotan

		2016ko HASIERAKO AURREKONTU- KREDITUAK	BIRSAILKAPENAK	2016ko HASIERAKO AURREKONTU- KREDITUAK Birsailkapenak egin ondoren	2017ko HASIERAKO AURREKONTU- KREDITUAK	ALDAKETA (%)	2017ko aurrekontuaren %
1. KAP.	Pertsonal-gastuak	1.222.801,02	0,00	1.222.801,02	1.335.778,76	%9,24	%48,01
2. KAP.	Ond. arrunten eta zerb.en erosketak	692.724,57	416.026,38	1.108.750,95	978.129,66	-%11,78	%35,15
3. KAP.	Gastu finantzarioak	36.698,49	0,00	36.698,49	23.062,29	-%37,16	%0,83
4. KAP.	Transferentzia arruntak	22.260,15	0,00	22.260,15	41.055,09	%84,43	%1,48
6. KAP.	Inbertsioak eta programak	435.026,38	-416.026,38	19.000,00	19.000,00	%0,00	%0,68
9. KAP.	Pasibo finantzarioak	377.768,03	0,00	377.768,03	385.409,60	%2,02	%13,85
GASTUAK, GUZTIRA		2.787.278,64	0,00	2.787.278,64	2.782.435,40	-% 0,17	%100,00

1. kapitulua. Pertsonal-gastuak.

1. kapitulua gastu guztien %48,01 da. 2017ko ekitaldirako aurreikusitako den zenbatekoa 1.335.778,76 eurokoa da, eta kopuru hori %9,24ko gehikuntza da aurreko ekitaldian aurreikusitakoaren aldean. Langile lan-kontratudun finkoen ordainsarrietan izan den igoeraren arrazoia da 2017an EUDELEko lantaldera pertsona berri bat batzea aurreikusten dela.

2. kapitulua. Gastu arruntak eta zerbitzu-gastuak.

2. kapitulua gastu guztien %35,15 da, eta %11,78ko jaitsiera izan du aurreko ekitaldiko aurrekontuaren aldean.

Kapitulu horren murrizketaren zati bat dator 2016ko ekitaldian elkarte onura publikokotzat jo izanaren ondorioz, Eusko Jaurlaritzaren Elkarte Erregistroaren

2016ko apirilaren 27ko aitortpena dela medio. Berritasun hori Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeko hirugarren xedapen gehigarriak eragin du, EUDELentzat onura publikoaren deklarazioa onartzen baitu. Ildo horretan, elkarteak irabazi asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari buruzko zein mezenasgorako zerga-pizgarriei buruzko foru-araudiari heltzen dio, eta, hortaz, araudi horretan jasoriko onura fiskalak izango ditu; hala, bada, tokiko tributuetan gastu txikiagoa izatea aurreikusten da 2017rako.

Aurreko lerroaldean aipatutakoari loturik, Eusko Jaurlaritzak erabaki du doan lagatzea Zabalgunen plazako 5.eko lehen solairuko ezker alde eta eskuinaldearen erabilera, eta, beraz, ez da aurreikusten gasturik ondasun higiezin horien alokairuagatik.

Berritasun gisa, 2016ko ekitaldiko aurrekontuarekin erkaturik, Gobernantza-proiekturako laguntza teknikoaren gastuei loturiko kontu-sail bat xedatu da, 70.000 eurokoa, hain zuzen. Kontu-sail horretarako, bestalde, 30.000 euroko sarrera bat aurreikusi da, proiektuan parte hartuko duten udalek jarriko dutena.

2016ko ekitaldian, Betean Auditoría S.L.P enpresak azterketa eta ebaluazio bat egin zuen EUDEL-en kudeaketa ekonomikoaren barne-kontrolako sistemari buruz. Azterketa horren gomendioetako bat izan zen 6. kapituluko kontu-sail jakin batzuk 2. kapitulura birsailkatzea, programa edo zerbitzu batzuei dagozkien gastuak direlako, ez inbertsioari dagozkionak. 2017ko ekitaldian egokitzapen hori sartu da. Birsailkapen hori argiago ulertzeko, txosten honi erantsitako gastuaren aurrekontuaren egoera-orrian zutabe gehigarri bat jarri da, birsailkapenen banakapena aditzera ematen duena.

2. kapitulan kontu-sail hauek nabarmentzen dira:

- Udalen informazio-sistema ekonomiko-finantzarioa: 15.350 euro.
- Azterketak eta lan teknikoak: 96.151,42 euro
- Webgunearen mantentze-lanak: 43.560,00 euro

3. kapitulua. Gastu finantzarioak.

Kapitulu honen zuzkidura 23.062,29 eurokoa da, eta aurreko ekitaldietan erositako Colon de Larreategui eta Ercilla kaleetako ondasun higiezinaren hipoteka-maileguengatik ordaindu beharreko interesen gastuei dagokie. Kapitulu hau %37,16 gutxitu da 2016ko aurrekontuaren aldean.

4. kapitulua. Transferentzia arruntak.

Transferentzia arrunten kapitulua 41.055,09 eurokoa da.

Toponimiaren arloan Euskaltzaindiarekin ezarritako hitzarmenari dagokion gastua jasotzen da; hain zuzen, horretarako xedatutako zuzkidura 15.000 eurokoa da.

Era berean, 14.544,94 euroko zuzkidura bat jasotzen da EUDELen eta FEMPren arteko lankidetzahitzarmenerako, 2015eko eta 2017ko kuotei dagokiena. Halaber, 11.250 euroko zuzkidura bat dago EUEKrekin berdintasun, aniztasun eta gizarteratzeari buruzko konferentzia egiteko izenpetutako lankidetzahitzarmenerako.

Kapitulu honetan, orobat, Euskaliteko kolaboratzaile-kuota jasotzen da: 260,15 euro.

6. kapitulua. Inbertsioak eta programak.

Kapitulu honetan, programa eta ekipamendu informatikoei zein altzariei dagozkien inbertsioak jasotzen dira. Aurrekontu-zuzkidura 2016ko ekitaldikoaren berbera da, hots, 19.000 euro.

9. kapitulua. Pasibo finantzarioak.

9. kapitulari dagokion zenbatekoa 385.409,60 eurokoa da; kapitulu honetan, %2,02ko gehikuntza izan da, aurreko ekitaldiko aurrekontuaren aldean.

AURREKONTUAREN ANALISIA, PROGRAMAKA

Hona hemen 2017ko gastuen aurrekontua, programaka banakaturik:

Zenbatekoak, eurotan

	2016ko HASIERAKO AURREKONTU- KREDITUAK	2017ko HASIERAKO AURREKONTU- KREDITUAK	2016-2017 arteko aldea (%)
ADMINISTRAZIO OROKORRA	2.388.198,64	2.360.855,40	-%14,84
PRESTAKUNTZA	40.000,00	27.000,00	-%32,50
GIZARTE ZERBITZUAK	43.000,00	43.000,00	%0,00
BERDINTASUNA	132.800,00	102.800,00	-%22,59
EUSKARA	46.500,00	47.000,00	%1,08
UDALERRI TXIKIAK	21.780,00	21.780,00	%0,00
BERRIKUNTZA	110.000,00	110.000,00	%0,00
EUROPAKO PROIEKTUAK (GOBERNANTZA)	5.000,00	70.000,00	%1.300,00
GUZTIRA	2.787.278,64	2.782.435,40	-%0,17

Programa horietatik, ondorengoa da nabarmentzekoa:

Administrazio Orokorreko programan, Elkarteari orokorrean dagozkion jardueren ondoriozko gastuak sartzen dira. Gastu-bolumen handiena jasotzen duen programa da, 2.360.855,40 euro, hain zuzen.

Nabarmentzekoa da azterketa eta lan teknikoen kontu-sailak duen garrantzia, 96.151,42 euro esleituta.

Programa horretan, halaber, EUDELen barneko euskara-plana eta berdintasun-plana garatzea aurreikusten da, bai eta udalen informazio-sistema ekonomiko-finantzarioa ere, gobernu-organoei erabakiak hartzea errazteko helburuz garatzen ari den sistema bat, hain zuzen.

Programan, era berean, II. kapituluaren gainerakoa, pertsonal-gastuak (I. kapitulua), eta hipoteka-maileguen finantza-karga (III. eta IX. kapituluak) daude jasota.

Prestakuntza-programan xedatu den aurrekontu-zuzkidura 27.000 eurokoa da. Aurrekontu-zuzkiduratik, 15.000 euro Toki Zuzenbideko Euskal

Mintegirako erabiliko dira, eta 12.000 euro, pertsonal politikoaren prestakuntzarako.

Gizarte zerbitzuen programan, Eusko Jaurlaritzak finantzaturiko etorkinentzako itzulpen-zerbitzuak jarrai dezan, aurreko ekitaldiko 43.000 euroko zenbateko berari eutsi zaio, zerbitzua ematea bermatuko duen enpresa kontratatzeko.

Berdintasun-programan, Berdinsarea izeneko sarea eta Berdinbidean programa izango dira ekitaldi honetan ere lanaren ardatzak. Programa honetarako xedatu den zuzkidura 102.800 eurokoa da, eta, haietatik, EUDELek 18.000 euro jarriko ditu. Aurreko ekitaldikoaren aldean, aurrekontu-zuzkidura %22,59 gutxitu da, ez delako jasoko Arabako Foru Aldundiaren diru-laguntza, 30.000 euro, Berdinbidean programarako; izan ere, Aldundiak berak kudeatuko du zuzenean zerbitzuaren kontratazioa.

Euskara-programan, 2017rako aurreikusten den gastua 47.000 eurokoa da. Haietatik, 28.000 euro udaletan euskara erabil dadin sustatzeko plan orokorrak taxutu eta garatzeko helburuz Eusko Jaurlaritzarekin eginiko hitzarmena betetzeko izango dira; 15.000 euro, Euskaltzaindiarekin eginiko toponimia-arloko hitzarmenean hartutako betebeharrak gauzatzeko; eta 4.000 euro, programaren gastu osagarrietarako.

Udalerrri txikien programan, udalentzat interesgarriak diren araudi-aldaketei eta diru-laguntzei buruzko datu-basearen zerbitzua (Infoudala) mantendu da. Aurreko ekitaldiko aurrekontu-zuzkidura bera du programak: 21.780 euro. Gastu hau EUDELen baliabide propioekin finantzatzen da erabat.

Berrikuntza-programan, Tokiko Berrikuntza Agendaren proiektuan lanean jarraitzea aurreikusten da. Programa hori 2009. urtean jarri zen abian, eta Eusko Jaurlaritzak finantzatzen du. Aurreikusten denez, finantzaketak aurreko ekitaldiko aurrekontu-zuzkidura bera izango du 2017an, 110.000 euro, alegia

Europako proiektuen inguruko programaren zuzkidura 70.000 eurokoa da. Zenbateko hori Gobernantza-proiekturako erabiliko da osorik.

ONDORIOAK

Aurrekontua orekaturik dago sarreraren eta gastuen aldetik 2017rako, eta haren zenbatekoa 2.782.435,40 eurokoa da; horrek esan nahi du %0,17 gutxitu dela aurreko ekitaldiko aurrekontuaren aldean, bi arrazoi direla medio, batik bat:

- Aurreko ekitaldiko aurrekontuaren aldean, ehuneko 0,85 gutxitu da udalak finantzatzeko foru-funtsen %0,15eko partaidetzari dagokion aurrekontu-zuzkidura, 17.819,95 euroko sarrera-murrizketarekin.
- Diru-laguntzei lotutako sarrerak ehuneko 9,37 gutxitu dira, ez delako jasoko Arabako Foru Aldundiaren diru-laguntza, 30.000 euro, Berdinbidean programarako, Aldundiak zuzenean kudeatuko baitu zerbitzuaren kontratazioa.

2017ko ekitaldiko jardueratik, hau da nabarmentzekoa:

- Udalen informazio-sistema ekonomiko-finantzarioa: 15.350 euro.
- EUDELen webgune berria diseinatu eta garatzea: 43.560 euro.
- Gobernantza-programa, 70.000 euroko zenbatekoa esleituta eta 30.000 euroko diru-sarrera bat lotuta, parte hartuko duten udalen ekarpenen ondorioz.

Azterketa eta lan teknikoen kontu-saila, 96.151,42 euro esleituta, %38,54 gutxitu da, aurreko ekitaldikoaren aldean.

Azkenik, nabarmendu behar da Eusko Jaurlaritzaren eta Emakunderen diru-laguntzak jasotzen jarraitzea aurreikusten dela, Berdintasuneko, Berrikuntzako, Euskarako eta Gizarte Zerbitzuetako programei dagokienez, bai eta, halaber, Gobernantza-proiektuan parte hartuko duten udalengandik 30.000 euro jasotzea ere.

I. ERANSKINA. 2017ko SARREREN ETA GASTUEN AURREKONTUA

2017ko AURREKONTUA					
SARREREN EGOERA-ORRIA					
					EUROTAN
SAILKAPEN EKONOMIKOA	DESKRIBAPENA	2016ko HAS. AURREIKUS.	2017ko HAS. AURREIKUS.	2016-2017 arteko aldea (%)	
		2.787.278,64 €	2.782.435,40 €	-0,17%	
3	TASAK ETA BESTE SARRERA BATZUK	29.000,00 €	40.700,00 €	40,34%	
	399 Beste hainbat sarrera	29.000,00 €	40.700,00 €	40,34%	
	39901 Jardunaldien ondoriozko sarrerak	24.000,00 €	35.700,00 €	48,75%	
	39902 Beste sarrera batzuk	5.000,00 €	5.000,00 €	0,00%	
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	2.704.733,92 €	2.687.816,04 €	-0,63%	
	41 Euskal Autonomia Erkidegoa	2.704.733,92 €	2.687.816,04 €	-0,63%	
	410 Administrazio orokorra	290.100,00 €	290.100,00 €	0,00%	
	41001 Berdinsarea-Berdinbid-EUEK. Erakunde	104.800,00 €	104.800,00 €	0,00%	
	41002 UDALE sarea. Eusko Jaurlaritza	28.000,00 €	28.000,00 €	0,00%	
	41003 Berrikuntza (TBA). Eusko Jaurlaritza	110.000,00 €	110.000,00 €	0,00%	
	41004 Etorkin. itzulpen-zerb. Eusko Jaurlaritza	47.300,00 €	47.300,00 €	0,00%	
	416 Foru-aldundiak eta beste foru-erakunde batzuk	2.131.557,16 €	2.083.737,21 €	-2,24%	
	41601 Araba. Zerga itunduen partaidetza	279.285,85 €	295.684,10 €	5,87%	
	41602 Bizkaia. Zerga itunduen partaidetza	1.122.793,73 €	1.099.932,99 €	-2,04%	
	41603 Gipuzkoa. Zerga itunduen partaidetza	699.477,58 €	688.120,12 €	-1,62%	
	41604 Berdinean berdintasun-sarea. Foru-aldundiak	30.000,00 €		-100,00%	
	417 Toki-erakundeak	283.076,76 €	313.978,83 €	10,92%	
	41701 Eudeleko bazkideen kuotak	283.076,76 €	283.978,83 €	0,32%	
	41702 Gobernantza-proiekturako ekarpenak		30.000,00 €	100,00%	
5	ONDARE-ARLOKO DIRU-SARRERAK	53.544,72 €	53.919,36 €	0,70%	
	54 Ondasun higiezin errentak	53.514,72 €	53.889,36 €	0,70%	
	540 Hiri-finken errentamendua	53.514,72 €	53.889,36 €	0,70%	
	540 Hiri-finken errentamendua	53.514,72 €	53.889,36 €	0,70%	
	59 Ondare-arloko beste sarrera batzuk	30,00 €	30,00 €	0,00%	
	591 Banku-kontuen interesak	30,00 €	30,00 €	0,00%	
	591 Banku-kontuen interesak	30,00 €	30,00 €	0,00%	

			2017ko AURREKONTUA				
			GASTUEN EGOERA-ORRIA				
							En Euros
SAILKAPEN EKONOMIKOA	DESKRIBAPENA		2016ko HASIERAKO AURREKONTU-KREDITUAK	BIRSAILKAPENAK	2016ko HASIERAKO AURREKONTU-KREDITUAK Birsailkapenak egin ondoren	2017ko HASIERAKO AURREKONTU-KREDITUAK	2016-2017 arteko aldea (%)
			2.787.278,64 €		2.787.278,64 €	2.782.435,40 €	-0,17%
1		PERTSONAL-GASTUAK	1.222.801,02 €		1.222.801,02 €	1.335.778,76 €	9,24%
11		Behin-behineko langileak	55.809,45 €		55.809,45 €	56.551,21 €	1,33%
	110	Behin-behineko langileen ordainsariak	55.809,45 €		55.809,45 €	56.551,21 €	1,33%
13		Langile lan-kontratudunak	901.389,65 €		901.389,65 €	997.764,99 €	10,69%
	130	Lang. lan-kontratudun finkoen ordainsariak	901.389,65 €		901.389,65 €	997.764,99 €	10,69%
16		Enplegatalearen konturako gizarte-kuotak, -prestazioak eta -gastuak	265.601,92 €		265.601,92 €	281.462,56 €	5,97%
	160	Gizarte-kuotak	252.892,38 €		252.892,38 €	268.685,92 €	6,25%
	16001	Gizarte Segurantza	226.038,00 €		226.038,00 €	241.643,80 €	6,90%
	16004	Elkarkidetzako kuotak	26.854,38 €		26.854,38 €	27.042,12 €	0,70%
	163	Lang. lan-kontratudunen gizarte-gastuak	12.709,54 €		12.709,54 €	12.776,64 €	0,53%
	16301	Langileen prestakuntza	6.000,00 €		6.000,00 €	6.000,00 €	0,00%
	16305	Bizi- eta istripu-aseguruak	6.709,54 €		6.709,54 €	6.776,64 €	1,00%
2		ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZUEN EROSKETA	692.724,57 €	416.026,38 €	1.108.750,95 €	978.129,66 €	-11,78%
20		Errentamenduak	58.806,00 €		58.806,00 €	2.199,78 €	-96,26%
	20101	Aparkalekuen errentamendua	2.178,00 €		2.178,00 €	2.199,78 €	1,00%
	20102	Ondasun higiezin errentamendua	56.628,00 €		56.628,00 €		-100,00%
21		Konponketak, mantentze-lanak eta kontserbazioa	16.000,00 €		16.000,00 €	16.000,00 €	0,00%
	214	Altzarien konponketak	10.000,00 €		10.000,00 €	10.000,00 €	0,00%
	215	Ekipamendu informatikoen mantentze-lanak	6.000,00 €		6.000,00 €	6.000,00 €	0,00%
22		Materiala, hornidurak eta beste batzuk	526.588,57 €	416.026,38 €	942.614,95 €	909.929,88 €	-3,47%
	220	Bulego-materiala	26.500,00 €		26.500,00 €	26.500,00 €	0,00%
	22001	Bulego-materiala	20.000,00 €		20.000,00 €	20.000,00 €	0,00%
	22002	Prentsa, aldizkariak, liburuak eta beste argitalpen batzuk	6.000,00 €		6.000,00 €	6.000,00 €	0,00%
	22003	Material informatiko inbentariaezina	500,00 €		500,00 €	500,00 €	0,00%
	221	Hornidurak	23.676,76 €		23.676,76 €	23.913,53 €	1,00%
	22101	Argindar-hornidurak	17.545,00 €		17.545,00 €	17.720,45 €	1,00%
	22102	Ur-hornidurak	750,00 €		750,00 €	757,50 €	1,00%
	22103	Gas-hornidurak	5.381,76 €		5.381,76 €	5.435,58 €	1,00%
	222	Komunikazioak	39.730,00 €		39.730,00 €	30.230,04 €	-23,91%
	22201	Telefono-komunikazioak	26.400,00 €	4.330,00 €	30.730,00 €	21.230,04 €	-30,91%
	22202	Posta-komunikazioak	9.000,00 €		9.000,00 €	9.000,00 €	0,00%
	22203	Internet-komunikazioak	4.320,00 €	4.320,00 €			-
	22204	Telexa eta faxa	10,00 €	10,00 €			-
	224	Eraikinen aseguruaren primak	2.900,00 €		2.900,00 €	2.929,00 €	1,00%
	225	Tributuak	15.000,00 €		15.000,00 €	2.500,00 €	-83,33%
	226	Askotariko gastuak	122.138,96 €	416.026,38 €	538.165,34 €	601.291,89 €	11,73%
	22601	Kanonak				3.701,89 €	100,00%
	22602	Protokoloko eta ordezkartzako beharrak	2.000,00 €		2.000,00 €	2.000,00 €	100,00%

	22603	Publizitatea eta komunikazioa	49.038,96 €		49.038,96 €	84.560,00 €	72,43%
	2260301	Publizitatea eta propaganda	1.000,00 €		1.000,00 €	1.000,00 €	0,00%
	2260302	Prensa eta komunikazioko zerbitzua	13.038,96 €		13.038,96 €	20.000,00 €	53,39%
	2260303	UDALA aldizkaria	10.000,00 €		10.000,00 €	10.000,00 €	0,00%
	2260304	Argitalpenak	10.000,00 €		10.000,00 €	10.000,00 €	0,00%
	2260305	Web-orriaren mantentze-lanak	15.000,00 €		15.000,00 €	43.560,00 €	190,40%
	22604	Defentsa juridikoa	5.000,00 €		5.000,00 €	6.000,00 €	20,00%
	22605	Bilkurak eta konferentziak	36.100,00 €		36.100,00 €	36.100,00 €	0,00%
	22607	Askotariko gastuak	10.000,00 €		10.000,00 €	1.000,00 €	-90,00%
	22608	EUEK-ko Berdintasun Batzordeko burutza	20.000,00 €		20.000,00 €	27.000,00 €	35,00%
	22609	Askotariko gastuak		401.026,38 €	401.026,38 €	440.930,00 €	9,95%
	2260910	Udal. txikientzako diru-lag.en jarraip. (INFOUDALA)		21.780,00 €	21.780,00 €	21.780,00 €	0,00%
	2260920	Toki Zuzenbideko Euskal Mntegia		15.000,00 €	15.000,00 €	15.000,00 €	0,00%
	2260930	Politikarien Ikastaroak		25.000,00 €	25.000,00 €	12.000,00 €	-52,00%
	2260940	Informazio-sistemak				15.350,00 €	100,00%
	2260950	Europako proiektuak		5.000,00 €	5.000,00 €	70.000,00 €	1300,00%
	2260960	Berdintasuna, Berdinsarea		52.400,00 €	52.400,00 €	52.400,00 €	0,00%
	2260970	Berdintasuna, Berdinbidean		80.400,00 €	80.400,00 €	50.400,00 €	-37,31%
	2260980	Euskara, EUDEL		31.500,00 €	31.500,00 €	32.000,00 €	1,59%
	2260990	Tokiko Berrikuntza Agenda		110.000,00 €	110.000,00 €	110.000,00 €	0,00%
	2260991	Etorkinentzako itzulp.-zerb.		43.000,00 €	43.000,00 €	43.000,00 €	0,00%
	2260992	Funts bibliografikoak		16.946,38 €	16.946,38 €	19.000,00 €	12,12%
	226101	Udal-informazioko sistemen datu-baseak		15.000,00 €	15.000,00 €		-100,00%
	227	Kanpoko beste enpresa batzuek egindako lanak	296.642,85 €		296.642,85 €	222.565,42 €	-24,97%
	22701	Garbiketa-enpresen lanak	36.300,00 €		36.300,00 €	36.663,00 €	1,00%
	22707	Azterketak eta lan teknikoak	156.449,08 €		156.449,08 €	96.151,42 €	-38,54%
	22710	Posta-zerbitzuak	1.000,00 €		1.000,00 €	1.010,00 €	1,00%
	22711	Programa informatikoen mantentze-lanak	5.469,24 €		5.469,24 €	7.021,00 €	28,37%
	22712	Jardunaldiak eta mintegiak	35.000,00 €		35.000,00 €	5.000,00 €	-85,71%
	22713	Jabekideen erkidegoaren kuotak	22.000,00 €		22.000,00 €	22.220,00 €	1,00%
	22714	Barneko euskara-plana	12.000,00 €		12.000,00 €	12.000,00 €	0,00%
	22715	Kanpoko beste enpr. batzuek egindako lanak	12.424,53 €		12.424,53 €	12.500,00 €	0,61%
	22716	Itzulpen-zerbitzuak	16.000,00 €		16.000,00 €	18.000,00 €	12,50%
	22718	Berdintasun-plana				12.000,00 €	100,00%
	23	Zerbitzuaren ondoriozko kalte-ordain.	91.330,00 €		91.330,00 €	50.000,00 €	-45,25%
	230	Langileen dietak, lokom. eta lekuaid.	25.000,00 €		25.000,00 €	25.000,00 €	0,00%
	231	Goi-kargudunen dietak, lokom. eta lekuaid.	66.330,00 €		66.330,00 €	25.000,00 €	-62,31%
	3	GASTU FINANTZARIOAK	36.698,49 €		36.698,49 €	23.062,29 €	-37,16%
	33	Epe luzerako maileguak	36.698,49 €		36.698,49 €	23.062,29 €	-37,16%
	331	Epe luzerako maileguen interesak	36.698,49 €		36.698,49 €	23.062,29 €	-37,16%
	4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	22.260,15 €		22.260,15 €	41.055,09 €	84,43%
	48	Famil. eta irab.-asmorik gabeko erakund	22.260,15 €		22.260,15 €	41.055,09 €	84,43%
	481	Irabazi-asmorik gabeko erakundeei	22.260,15 €		22.260,15 €	41.055,09 €	84,43%
	48101	Hitzarmena, FEMP	7.000,00 €		7.000,00 €	14.544,94 €	107,78%
	48102	Hitzarmena, EUSKALTZAINDIA	15.000,00 €		15.000,00 €	15.000,00 €	0,00%
	48103	Hitzarmena, EUSKALIT	260,15 €		260,15 €	260,15 €	0,00%
	48104	2018ko biltzarra, EUEK				11.250,00 €	100,00%

6		INBERTSIO ERREALAK	435.026,38 €	-	416.026,38 €	19.000,00 €	19.000,00 €	0,00%
	64	Inbertsio immaterialen gastuak	405.080,00 €	-	399.080,00 €	6.000,00 €	6.000,00 €	0,00%
	649	Beste ibilgetu immaterial batzuk	405.080,00 €	-	399.080,00 €	6.000,00 €	6.000,00 €	0,00%
	64901	Udal. txikientzako diru-lag.en jarraip.	21.780,00 €	-	21.780,00 €	- €	-	-
	6490201	Toki Zuzenbideko Euskal Mintegia	15.000,00 €	-	15.000,00 €	- €	-	-
	6490202	Politikarien ikastaroak	25.000,00 €	-	25.000,00 €	- €	-	-
	64904	Programetako inbertsioak	6.000,00 €			6.000,00 €	6.000,00 €	0,00%
	64906	Europako proiektuak	5.000,00 €	-	5.000,00 €	- €	-	-
	64907	Berdintasuna, Berdinsarea	52.400,00 €	-	52.400,00 €	- €	-	-
	64908	Berdintasuna, Berdinbidean	80.400,00 €	-	80.400,00 €	- €	-	-
	64909	EUDEL en euskara-plana	31.500,00 €	-	31.500,00 €	- €	-	-
	64910	Tokiko Berrikuntza Agenda	110.000,00 €	-	110.000,00 €	- €	-	-
	64911	Etorkinentzako itzulp.-zerb.	43.000,00 €	-	43.000,00 €	- €	-	-
	64912	Udal-informazioko sistemen datu-baseak	15.000,00 €	-	15.000,00 €	- €	-	-
	68	Ondare-ondasunen inbertsioen gastuak	29.946,38 €	-	16.946,38 €	13.000,00 €	13.000,00 €	0,00%
	685	Altzariak eta tresnak	13.000,00 €			13.000,00 €	13.000,00 €	0,00%
	68501	Altzariak eta tresnak	6.000,00 €			6.000,00 €	6.000,00 €	0,00%
	68502	Ekipamenduetako inbertsioak	7.000,00 €			7.000,00 €	7.000,00 €	0,00%
	688	Funts bibliografikoak	16.946,38 €	-	16.946,38 €	- €	- €	-
9		PASIBO FINANTZARIOAK	377.768,03 €			377.768,03 €	385.409,60 €	2,02%
	93	Epe luzearako maileguen amortizazioa	377.768,03 €			377.768,03 €	385.409,60 €	2,02%
	931	Sektore publikotik kanpo	377.768,03 €			377.768,03 €	385.409,60 €	2,02%

Eudeleko Batzorde Eragileak 2017ko martxoaren 10ean onartutako proiektua.

AURREKONTUA GAUZATZEKO ARAUAK - 2017

1. artikulua.- Aurrekontua gauzatzeko arau hauek 2017ko ekitaldirako onarturiko aurrekontuaren indarraldi bera dute.

Hurrengo ekitaldiaren hasieran ez badira onartu ekitaldi horri dagozkion aurrekontuak, aurreko ekitaldikoak automatikoki luzatutzat joko dira, hasierako kredituekin. Kasu horretan, arau hauek ere indarrean jarraituko dute, luzapena dirauen aldian.

2. artikulua.- Lotura juridikoa, gastuen sailkapen ekonomikoan, kapitulu-mailakoa izango da; eta gastuen programakako sailkapenean, bestalde, gastu-arloaren mailakoa. Nolanahi ere, bermatu beharko da 1. kapituluari (“Pertsonal-gastuak”) dagozkion gastu arruntek behar besteko aurrekontu-aurreikuspena izan dezaten.

3. artikulua.- Aurreko kapituluan ezarritakoagatik ere, kontabilitate-kontrola dagokion kontu-sailaren gainean egingo da

4. artikulua.- Etorkizuneko ekitaldietarako kreditua konprometitu ahalko da, baldin eta uneko ekitaldian edo hurrengoan hasten bada gauzatzen, eta etorkizuneko ekitaldi bakoitzerako zenbateko metatuak ez badu gainditzen eragiketa arruntengatiko baliabideen %25. Baliabide horiek likidatutako azken ekitalditik ondorioztatuko dira. Konpromiso-kredituek kanpoko finantzaketa baldin badute, ez dira gastutzat kontatuko, muga horren ondorioetarako.

5. artikulua.- Eskuraketetan eta obren, zerbitzuen edo horniduren kontratazioetan, ekitaldi batean baino gehiagotan ordaindu beharreko ordainketa geroratua dutenean, aurreko 4. artikuluan konpromiso-kredituei buruz ezarritakoa bete beharko da.

6. artikulua.- Gastuen egoera-orrian kreditua sortuko da pertsona fisiko edo juridikoen ekarpenetatik edo ekarpen-konpromiso irmoetatik datozen sarreraren ondorioz, gastu jakin batzuei lotuta daudenean.

7. artikulua.- Lotura juridikoaren maila gainditzen duen gastu bat egin behar denean, aurreko ekitaldiko gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinaren zenbateko berean gehituta, hala gertatzen denean, beharrezkoa izango da Batzorde Eragilearen erabakia.

8. artikulua.- Gastu-esleipena onartzeko eskumena honela ezarrita dago:

- Elkaratearen Zuzendaritza Nagusiaren eskumena da, zenbatekoa 18.000 eurotik gorakoa ez denean (BEZ sartu gabe).
- Elkarteburuaren eskumena da, zenbatekoa 18.000 eurotik gorakoa izan, eta 50.000 euroko zenbatekoa gainditzen ez duenean (bi zenbatekoetarako, BEZ sartu gabe).
- Elkaratearen Batzorde Eragilearen eskumena da, zenbatekoa 50.000 eurotik gorakoa denean (BEZ sartu gabe).

9. artikulua.- Gauzatzeko arau hauei jarraituz aurrekontuari egiten zaizkion aldaketa guztien berri emango zaie Elkarate honetako kide diren udalei.

10. artikulua.- Ordainketak arau hauek betez egingo dira:

Funtsak Zuzendaritza Nagusiaren eta horretarako gaitutako Diruzaintzako arduradunen sinadura mankomunatuekin erabiliko dira, eta hiru sinadura mankomunatuetatik bi zango dira beharrezkoak.